


Noaia!!



Larunbat honetan,
"Portukoplak" Sutegin



Sagarrondotik herri kirol lehiaketako

Txapelaren bila

Udaberria Urtinean



Zatoz
eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi
zein lorategia



Urtinea Lorategia

San Esteban auzoa
943 362 255 Fax: 943 366 054
E-mail: urtinea@euzkalinot.net

Rafa

iturgindegia



astehenetik ostiralera:
10h30-13h30 / 16h30- 19h30
larunbatetan:
10h00- 13h00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

▶ www.noaua.com ◀
usurbildarron zerbitzura



Badok Amairu !!

Xuriñe Olasagasti: "Kirolik egin gabe ezin naiteke bizi"

Izen abizenak: Xuriñe Olasagasti.

Adina: 21 urte.

Helbidea: Kaleberri.

Lanbidea: Goi Mailako Zikloko ikaslea eta langilea.

1. **JAKIRIK GOGOKOENA.**
Makarroiak tomatearekin.

2. **OHITURA TXARREN BAT.**
Zenbait momentutan despistatua izatea.

3. **ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?**
Txanponen bat.

4. **ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?**
Neronengan.

5. **ZERI DIOZU BELDURRA?**
Heriotzari.

6. **MIRESTEN DUZUN PERTSONA.**
Mutil laguna, familiakoak eta lagunak.

7. **EZIN ZAITEZKE BIZI...**
Kirolik egin gabe.

8. **EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.**
Lanera goazela, tren geltokian lo hartu eta trena galdu genueneko.

9. **LIBURU BAT.**
"Los pilares de la Tierra".

10. **FILM BAT.**
"Tesis".



11. **LEKU BAT.**
Euskal kostaldea.

12. **HERRIKO LEKURIK EDERRENA.**
Haizea hartzeko San Esteban ondo dago.

13. **URTARO BAT.**
Udara.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerari. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

HAUR ESKOLAN DAGO NOTIZIA... **6. OR.**

XOMORROREN LIBURU AURKEZPENA **8. OR.**

SAGARRONDOTIK JAIALDIA HASTERA DOA **10. OR.**

OSTIRALEAN, "PORTUKOPLAK" SUTEGIN **12. OR.**

LARUNBATEAN, NOAUA!KO BATZARRA **13. OR.**

UDARREGIKOAK CHILLIDA LEKUN **14. OR.**

JUDO TALDEA, OHOREZKO MAILARA **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

Denboraren orratzak

Larunbata, 17:23. Arratsaldeko bostetan gelditu eta berandu iritsi naiz lagunengana. Zain egon behar izan dute, azken momentura arte ez naizelako espabilatzen. Baina topalekura iritsi eta lasaitu ederra hartu dut; "oaindik jendia faltaek. Ni baño beandugo zetorrenik baek!". Ordua begiratzea pasa zaidala esan eta aurrera, "ze erremeyo." esango dute beti puntualak izan eta gainerakoen zain egoten direnek.

Erloju bati, despertadoreari jarritako alarmak esnatzen gaitu eta horrekin oheratzen gara; lantokian edo ikastetxean sartu eta irteteko ordutegia dugu, jateko denbora... Jaio ginenean, eguna eta hilabeteaz gain, gure sorrera ordua ere apuntatua dago. Gure bizitza amaituko den unean ere gauza bera gertatuko da. Denbora kontrolatzen al dugu edo denborak kontrolatzen gaitu? Erlojua etxean ahaztu edota pilak gastatu zaizkiola konturatzen garenean, paretetan, kale kantoian bueltaka dabilzan orratzei edota erloju digitalei begiratu gabe ezin eutsi. Ezin eutsi, horrelakorik ez badago, kalean ondoan pasa eta inguruan dago-

en norbaiti "zer ordu da?" galdetu gabe.

Egin dezagun proba bat. Orain, modan dauden mugikorrik edo telebistarik gabeko eguna dauden bezala, egin dezagun "erlojurik gabeko eguna". Astegun bat erlojurik gabe. 24 ordu denbora orratzen kontrolpetik kanpo. Besterik ez bada ere, eguzkiaren kokalekuari (egun horretan, oskarbi bada behintzat) begiratzearekin konpondu. Orduan neurtu ahal izango dugu gailu horiekiko dugun mendekotasun maila. Hortik aurrera, bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

Gaur erlojua etxean utzi dut. Dagoeneko, nagoen lekuan zer ordu den jakin ezinik, zehar begiratu bota diot autobusean ondoan doanari. Errepidean auto ilara luzeak daude. Autobusak hogeit hamar minutu ez aurrera ez atzera, mugitu ezinik dago. Ez dakit garaiz iristeko modurik izango ote dudan hitzordura. Eta beste behin berandu; oraingoan ez didate sinistuko. Nahiz eta benetako arrazoi bat tarteko izan. Gehienetan erlojuari aurre hartu nahian, niri behintzat, gehienetan orduak harrapatzen nau.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Mila esker, berriz ere

Mila esker, berriz ere martxoaren 3an Donostian izan zineten guztioi. Berriz ere erakustaldi ederra eman genien politikariei eta berriz ere milaka lagun eta herritar bildu ginen, oraingoan, Donostian. Politikoei inposatu nahi diguten errausketa, ez dugula nahi ez Zubietan eta ez beste inon argi eta garbi esan genien. Zaborraren kudeaketa aurrera eramateko beste alternatiba batzuk badaudela ere erakutsi genien eta herritarrak prest gaudela horretarako argi geratu da. Garaia da herriak eta herritarrek esaten dutena entzun eta praktikan jartzeko.

Lan horretan gabilta Usurbil Bizirik eta Zubieta Lantzen taldeak azkeneko denbo-

raldian. Alde batetik agerian ikusten diren egitasmoak bultzatzen ditugu: hitzaldiak, informazioaren buzoneoa, manifestaldien antolakuntza, herriko komertzioetan banatu berri ditugun triangeluak (errausketaren kontrakoak), pankarta, panelak, banderolak, kamisetak... Bestalde, ikusten ez den lana ere aurrera eramaten ari gara: errauste plantaren inguruan hartutako erabakien aurkako helegiteak, abokatuen aholkularitzak, gestioak...

Orain arte egindako lana, han eta hemen bildutako diru apurrekin ordaindu ahal izan dugu. Baina bide hau luzea izango da eta gero eta gastu handiagoak ditugu. Horregatik Usurbil Bizirik eta Zubietan

Lantzen taldeetatik deialdi bat luzatzen dugu: borroka honetan lagundu nahi bagaituzu zure borondatea eskertuko genuke ireki dugun kontu korrontean ahal duzun aportazioa egingo bazenu. Hona hemen kontu korrontea: Euskadiko Kutxa 3035 0140 30 1400024021.

Gogoan izan, Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibean eta Txirristra tabernan salgai daudela banderolak leihotetan jarri nahi duten guztientzat. Eta azkenik esan edozein herritar gonbidatuta dagoela Usurbil Bizirik edo Zubieta Lantzen taldeetan parte hartzera.

Usurbil Bizirik

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

2007ko udal aurrekontuari erreklamazioak aurkeztu dizkio UHLk

Otsailaren 2an egindako ez-ohiko udalbatza plenoan, 2007ko udal aurrekontua hasieraz onartua izan zen. Otsailaren 16ko astekarian, alderdi guztien balorazioak bildu genituen eta UHL elkar-guneak bere desadostasuna azaldu zuten. Orain jakin dugunez, UHLk hainbat erreklamazio aurkeztu ditu.

Legeak ezarritako epe barruan aurkeztuak izan dira erreklamazioak. Lehen erreklamazioa, Lurraren Udal Ondarea besterenganatzetik aurrez ikusitako 1.000.000 euroko diru-sarrerari dagokio. 2005 eta 2006ko udal aurrekontuetako antzeko partidarekin egin bezala, diru sarrera hori lur ondarea erostera bideratzea eskatu du UHLk. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak hala agintzen duela argudiatu du Usurbilgo Herri Lan elkarguneak.

Diru horiek horrela erabiltzea proposatu du UHLk:

- Etxebizitza sozialak eta babes ofizialeko egiteko lurra erosten.
- Herrian hutsik dauden etxe-erakinarok erosten eta birgaitzen, alojera sozialeko apartamentu edo etxeak jartzeko.

Bigarren erreklamazioa ere ildo berekoa da. 2007ko udal aurrekontuetan,

aurreikusi diren diru sarreren I. eta II. Kapituluaren batuketaren %10a (318.200 euro), udal lurzoru-ondarea erostera bideratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak agintzen duen bezala.

Hirugarren erreklamazioan, UHLk Euskal Herriaren eraikuntzan diharduten ondoko eragile hauei diru ekarpenak egitea proposatu du:

A. Alor ekonomiko-sozial-estatistikotan ari den Gaindegia erakundeari 4.000 euro.

B. Euskal Herriko Gazte Kontseiluari 4.000 euro.

UHL

“Ulergaitza egiten zaigu udal-teknikarien aholkularitza ez erabiltzea eta, kostuak areagotuz, kanpokoei eskatzea”

Hiru erreklamazio horiek egiteaz aparte, udal kontu-hartzailea eta udal gobernu taldearen artean sortu den ikamiaz ere badu zeresanik UHLk. UHLren ustez, “ulergaitza egiten zaigu usurbildar guztiok (tartean udal horre-



OTSAILAREN 2AN BEHIN BEHINGOZ ONARTU ZEN 2007KO UDAL AURREKONTUA.

tan ordezkatuak ez dauden 1.188ak) ordaintzen ditugun udal-teknikarien aholkularitza ez erabiltzea eta, kostuak areagotuz, kanpokoei eskatzea haiek egin beharko luketen lana”.

EAK eta EAJ-PNVk osatzen duten udal gobernu taldeak kanpoko aditu bulego bati eskatu zion udal aurrekontuaren inguruko txosten juridikoa egitea. UHLk dioenez, “jokaera horrek udal-gobernua dagoen taldearen asmo eta nahietara egokitutako txostenak eskuratzeko helburua ez ote dagoen susmatzera garamatza. Horregatik, gure erreklamazioak aztertzeke garaian udaleko bertako teknikarien zerbitzuak erabiltzeke eskatzen dugu”.

IMANOL UBEDA

Arau Subsidiarioekin bueltaka

Foru Aldundiak Usurbilgo Arau Subsidiarioak (AASS) onartu zituenetik bi urte eta erdi igaro direnean, udal gobernu Testu Bateragina (Diputazioak agindutako azken egokitzapenak egin ondoren, behin betiko dokumentua) bukatzeke gai ez dela izan salatu du UHLk. Lan horretarako Foru Aldundiak hiru hilabete eman zizkion.

UHLren ustez, atzerapenaren arrazoitariko bat izan da “horretarako kontratatutako arkitektoak udal gobernu taldearen egitasmoak lantzen edo lehendik

AASS onartutako planifikazioak aldatzen eta egitasmo berrietara egokitzen denbora gehiago pasa duela Testu Bateragina behar bezala amaitzen baino. Eta, bitartean, jakina, diru-kopuru ederrak jasoz, lana bukatua ez badago ere”.

Duela aste batzuk, Foru Aldundiak Usurbilgo udalak aurkeztutako Testu Bateragina atzera bota duela dio UHLk, berak esandako baino gauza gehiago aldatu dituztelako eta onartutako AASSen muina errespetatzen ez duelako. “Hirigintzako arduradunek diote orain, hilabeteak (behar bada beste sei) igaroko

direla behin betiko dokumentua izan arte”, dio UHLk prentsa ohar bidez.

UHLrentzat jokaera hau “onartezina da, usurbildarrok ez baitakigu zehatz mehatz datozen urteetako herriko garapena nondik nora joango den. Gainera, herritar batzuen proiektuak geldirik daude horregatik. Hortaz, berehala eta premiaz Testu Bateragina amaitzeke eskatu diogu udalari eta, baita ere, Luis Renedo arkitektoak 2003az geroztik jasotako ordainsarien xehetasunak jakinarazi diezaizkiola, kasua balitz, Kontu Epaitegia informatzeko”.

Haur Eskolan dago notizia...

Lan baldintzak hobetzea nahi dute langileek. Hori da azken asteotan Kalezarren dagoen Haur Eskolaren inguruan sortu den eztabaidaren gakoa. Langileek, lan baldintza duinagoak lortu asmoz, Kalezarreko eskola Haurreskolak Partzuergoa delako erakunde publikoan integratzeko proposamena egin zuten duela hilabete. Baina hori erabakiko balitz, herri izaera galduko luke Haur Eskolak. Guraso batzuk hala pentsatzen dute. Horregatik, udalari dirulaguntza handitzea eskatu diote, langileen baldintzak hobetu daitezen eta Haur Eskolak eskaintzen duen kalitatezko zerbitzua berma dadin.

Honako erreportajearen, ordezkaritza politikoaren eta hainbat gurasoen azalpenak bildu ditugu. Haur Eskolako langileek lehengo astean gutun bat argitaratu zuten aldizkari honetan. Langileek elkarriketatzeko saiakera egin dugu baina oraingoz nahiago dute azalpen gehiagorik ez ematea.

Kronologikoki azter dezagun gaia. Usurbilgo udalak duela sei urte lehiaketa publiko bidez esleitu zuen Kalezarreko Haur Eskolaren kudeaketa. Ordutik, eskolako langileek osatzen duten Ibanher kooperatibaren esku dago udal zerbitzu hori. Urteak pasa ahala, eskola handituz joan da etengabe. Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, ahalegin handiak egin dituzte langileek. Baina euren soldatak ez dira maila berean igo. Gauzak horrela, alternatiba gisa, Haur Eskolaren izaera aldatzea proposatu zuten langileek. Usurbilgo udalaren zerbitzua izateari utzi, eta Kalezarren dagoen eskola Partzuergoa delakoan integratu. Eusko Jaurlaritzak eta EAEko udalek osatutako erakunde publikoa da Haurreskolak Partzuergoa. Bere helburua, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haur eskolen kudeaketa osoa burutzea delarik. Partzuergoan integratuz, langileen lan baldintzak hobetu egingo lirateke. Baina bestelako ondorioak ere izango lituzke. Funtsean, soldaten hobetzerengatik planteatu zuten langileek aldatzea hori.

Otsailaren hasieran, Kalezarreko Haur Eskolako langileak gurasoekin

bildu ziren. Eskolaren ibilbidearen berri eman zieten eta euren lan baldintzak hobetzeko, alternatiba bezala, Partzuergoan integratzeko proposamena egin zuten eskolako langileek.

Herri eskolaren filosofia

Joseba Belaustegi eta Niko Bengoetxea Haur Eskolako bi guraso dira. Biler horretan izan ziren eta euren ustez, "epe laburrean normaltasuna bermatu asmoz, guraso batzuk Partzuergoaren aukerarekin bat egin zuten. Baina hori ez da bapatean erabakitze kontua; horrelako erabaki bat hartzea herriari dagokio. Eztabaida sakon bat eskatzen du horrek".

Niko Bengoetxearen ustez, "Haur Eskolako langileak ere hasieratik herri eskolaren filosofiarekin bat etorri dira. 0-16 udal hezkuntza integralaren alde daude hasieratik. Gauza da itota sentitzen direla ekonomikoki". Arazoa langileen lan baldintzak badira, "berma ditzagun lan baldintza horiek, baina kolokan jarri gabe kalitatezko udal proiektua", dio Joseba Belaustegik. Etorkizunean 0-16 ziklo integrala udal bideratu eta Udarregi ikastola, Aginaga eta Zubietako Eskola Txikiak eta Kalezarreko Haur Eskola koordinatzea litzateke egoera idealena eskolako guraso hauen ustez.

"Kalitatezko proiektua da"

Langileen lanarekin kexurik ez dute guraso hauek. Joseba Belaustegiren balorazioa ona da: "antolaketa ona daukate. Kalitatezko proiektua da, ondo funtzionatzen du eta horregatik nire galdera da, zergatik aldatu behar da? Nik uste dut



KONTUAK KONTU, MARTXAN DAGO HAUR ESKOLAKO MATRIKULAZIO KANPAINA.

Partzuergoaren planteamendu hori ez dela zuzena izan. Baina egia da erreta eta etsituta zeudela". Dirulaguntzen handitzeak langileen lan baldintzak hobetzea ekarriko luke. Behin hori konponduta, Haur Eskolak ez luke izaeraz aldatu behar.

"Inbertsio handiago egin behar da"

Joseba Belaustegiren esanetan, "kalitatezko proiektua mantentzeko, inbertsio handiago egin behar da. Udala eta langileen kooperatibaren arteko hitzarmena ere berrikusi egin beharko litzateke. Garbiketa, mantenua... Ibanher langileen kooperatibaren gain erortzen dira lan horiek. Karga horiek arindu beharko lirateke eta gai administratiboaren kudeaketa ere udala gehiago inplikatu beharko litzateke nire ustez".

Niko Bengoetxearen ustez, ondo legoke "0-16 urteko eskaintza hori *blindatzea*. Herri hezkuntza proiektua, Haur Eskola eta Udarregi ikastolaren artean osatzen den eskaintza hori ziurtatu ahal izateko".

Lourdes Jauregiberri, EAJ-PNV

"Udalak egin behar duena zerbitzua bermatzea da"

Gauza bakarra da Haur Eskolari buruz esateko daukaguna, udalak egin behar duena zerbitzua bermatzea da. Herriko gurasoei azken urte hauetan eskaini zaien zerbitzu aukera hau izaten jarraitzeko, momentu bakoitzean hartu behar

diren erabakiak hartu beharko dira. Hau da gure nahia eta gure helburua. Hau lortzeko formula bat baino gehiago egon daitezke, hauek aztertutak izango dira eta zerbitzuaren mesederako begirata hartu beharreko neurriak hartzeko prest gaude.

Luismari Ormaetxea alkatea, EA “Udal gobernuaren apustua Haurreskolak Partzuergoan integratzea da”

2005. urtean zehar gurasoak, Ibanher enpresa eta udalaren arteko hausnarketa emankorra egin zen Haur Eskolaren eredu pedagogikoari buruz. Horren ondorioz, Usurbilgo Haur Eskolaren kudeaketaren kontzesioa konkurtsora atera zen eta ordura arte Haur Eskola kudeatzen zuen Ibanher enpresak berriro irabazi zuen. Horren ondorioz Haur Eskola bi urtez kudeatzeko eskubidea lortu zuen, beste bi urtez luzagarriak zirenak.

Bi urte horiek amaitzeaz direnean Ibanher enpresak jakinarazi digu ez duela Haur Eskolaren kudeaketarekin jarraituko, eta bai gurasoei, bai udalari, Usurbilgo Haur Eskola Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ardurapean dagoen Haurreskolak Partzuergoan integratzea eskatu du proiektuarekin aurrera jarraitzeko erarik bideragarriena bezala.

Guzti honen aurrean, Haur Eskolako gurasoak batzar bat burutu zuten egoera aztertzeko. 150 inguru guraso izango dira guztira. Batzarrera hogeita-gutxi guraso bertaratu ziren. Horrela jakinarazi ziguten enpresa, gurasoak eta udal gobernuaren artean izandako bilera batean. Bozketa garaian 11 gurasoek Haur Eskola zerbitzuaren municipalizazioaren aldeko apustua egin zuten, 0-16 hezkuntza proiektu municipalaren alde azalduz.

Eztabaida hau ez da berria. Urtetan eztabaidatu da ikastolaren batzarretan eta beti atzera bota izan da.

Eztabaida hori gauzatzearekin ez

gaude kontra, baina, Ibanher enpresak zerbitzua uztearen erabaki irmoa kontuan izanik epe laburrean eta era urgentean erabakia hartu behar dugu. Gurasoak ezin dute eztabaida korapilatsu baten emaitzen zain egon, are gutxiago tartean udal hauteskundeak ditugunean.

Udal gobernu, egoera ikusirik, berehala Hezkuntza Sailarekin kontaktuan jarri zen eta hainbat bilera gauzatu ditu. Beraien plangintzan Usurbil ez zegoen datorren ikasturtean Partzuergoan sartzeko aukerarekin. Baina egin ditugun gestioak izan ditu fruituak: udalean, martxoaren 9an jaso dugun jakinarazpen baten arabera, aukera ematen digute 2007ko irailaren 1etik aurrera Usurbilgo Haur Eskola Partzuergoan integratzeko. Notizia ona eta lasaigarria da guztiontzat: Haur Eskola zerbitzua bermatua dugu.

Integrazio honen arabera dugun irakaslegoa zerbitzuan mantenduko litzateke eta ziurrenik 2-3 kurtsoa ere bai, herrian hezkuntza eskaintza publikoa (Eskola Txikiak eta Lanbide Eskola salbu) ez dugulako. Garbiketa arloa udalak bereganatu beharko luke eta jantoki zerbitzua argitzeke legoke.

Kontuan izanik urgentziaz hartu beharreko erabaki baten aurrean gaude, udal gobernuaren apustua Haurreskolak Partzuergoan integratzea da. Martxoaren 23a arte dugu epea erantzun bat emateko eta udal gobernuaren borondatea da bitarte honetan gurasoekin bilera bat egitea.

Amaya Goyaran, PSE-EE
“Sare publikoan
txertatu beharko luke”

Haur Eskolaren inguruko eztabaidan, bi arazoan aurrean aurkitzen gara.

Arazo politikoari dagokionez, Haur Eskola sare publikoan txertatuta egon beharko lukeela adierazi du gure taldeak hasieratik.

Arazo laborala, aldiz, Haur Eskolaren kontzesioa duen enpresarena da, kontratazioaz eta langileekiko harremanetat arduratzen den enpresarena.

Gure ustez, udalak Haur Eskolaren kontzesioa dutenekin bildu beharko luke eta baita Haur Eskolako langileekin ere. Bitartekari lanak egin beharko lituzke eta ahal duen neurrian lagundu, akordioaren bidez konponbidera iritsi ahal izateko. Gurasoekin ere bildu beharko luke udalak, zerbitzua kalitate osoarekin eskainiko zaiela adierazteko.

Manuel Michelena, PP
“Era batean edo bestean,
Haur Eskola izango da”

Balio sozial handiko zerbitzua ematen die familia askori eta ez dakit zer den arriskuan jar dezakeenik. Era batean edo bestean, Haur Eskola izango da Usurbilen eta alde guztiek, udala, gurasoak eta langileak, egin behar dutena zera da, hitz egin eta akordioetara iritsi. Dena den, nire ustez alde bateko interes partikularrek ezin dute Haur Eskolaren etorkizuna baldintzatu.

PSE-EE eta PPren balorazioak, erredakzioan itzuliak.

Arantxa Manterola, UHL: “Hezkuntza Mahaia eratzea komeni da”

Gure iritiz, Usurbilen hezkuntza eskaintza integrala, hau da, 0tik 16 urtera izatea da egokiena. Sare osoa izateak hezkuntzaren segida bermatzen du hainbat alorretan (pedagogikoa, hizkuntzan, herri bizitzan, herritarren arteko ezagutza eta harremanetan...).

Abiapuntu horretatik, herriko hezkuntza-sare osoa berraztertu eta egokitu beharko litzateke. Udarregik handitzeko

premia du, eskola txikiak ere hor daude beren arazoekin, Lanbide Eskolarekin harremana sakondu beharko litzateke eta Haur Eskola handitzen joan den heinean, bere beharrak ere aldatu egin dira.

Orain, lehen bezala, gure apustua Haur Eskola mantentzea da baina, ahal dela, udal autonomia gordez. Ulertzen dugu bertan ari diren langileak lan bal-

dintzak hobetu nahi izatea baina udalen ahalmen esparruak lehendik ere murriztak dira eta herrigintzarako inportantea da udalak zerbitzuak zuzenean kudeatzea. Hortaz, premia guztiak nola orekatu aztertu beharko da. Horregatik, gure ustez, Hezkuntza Mahaia eratzea komeni da behar guztiei ahalik eta erantzun koherenteena emateko, tartean, noski Haur Eskolakoei.

Xomorrok idatzitako bertso eta olerki liburua aurkeztu da

Jada eskuragai dago “Aurrera nekez egiten baitu herdoildutako orratzak...”, 15 urte preso espetxean daramatzan Xabier Aranburu “Xomorro” aginagarrak idatzitako olerki eta bertso bilduma liburua. Martxoaren 9an aurkeztu zen Sutegin, Usurbilgo Etxerat-ek, Bota Punttuba bertso eskolak eta NOAUA! Kultur Elkarrekin, udalaren laguntzarekin argitaratu berri den lana.

Aginaga, ilargia, euskara, kultura edota espetxea inspirazio iturri izan ditu Xabier Aranburu “Xomorrok” bertsoak eta olerkiak idazterakoan.

Martxoaren 9an aurkeztu zen Sutegin. Zaletasuna aspalditik izan arren, tarte horretan bertsoarako dohainak barneratu ditu. Ideiak segituan bururatu eta bertsoak bat-batean botatzeko abilezia aipatu zen aurkezpen ekitaldian. “Aparteko umorea du”, gogoratu zuten.

Urte horietan idatzitako hainbat olerki eta bertsoekin liburu bat argitaratu da. Azalak, Xomorrok hainbeste miresten dituen elementuen isla da; gau parte argizatzen duen ilargia eta Aginaga, bere jaioterria. Bide luze bat ere ageri da bertan; Xomorro dagoen lekutik etxera dagoen tarte, joan etorria irudikatzen da.


Liburuaren barruko orrialdeetan San Praixku jaietatik espetxe gaitara. Lagunei idatzitakoak edota Santixabel jaietako bertso paper lehiaketara aurkeztutakoak irakur daitezke. Horien artean, lehen aldiz, oholtza gainera igo eta botatako bertsoa. San Estebanen izan zen. Aurrean zituenei ongi etorria egiteaz gain, jendaurrean zegoen lehen aldia izanda, estu zegoela aipatzen zueneko. Orduetik bertsoarako maila ederra eta aberatsa eskuratu du. Liburu da horren erakusgarri.



IRUDIAN, KERMEN ERREKONDO BOTA PUNTTUBAKO KIDEA, ARANTXA MANTEROLA ETXERAT-EKO ORDEZKARIA ETA INTZA SALSAMENDI, LIBURUAREN DISEINATZAILEA.

Bertsoz eta olerkiz osatutako liburua

Xomorroren lan bildumarako bertso eta olerkiak Garazi Zubimendi zubietarrak transkribatu ditu. NOAUA!ko lankide Intza Salsamendik liburuaren azala eta maketazio lanak egin ditu. Zuzentzaile lanak, aldiz, Edorta Agirrek; eta Karlos Zabala *Arrastaluk* eta Amaia Kasasolak egindako zeramikekin, irudi eta argazkiekin apaindu da. Liburuaren doan eskura daiteke udal-etxean, liburutegian, NOAUA!n, kiroldegian, euskaltegian, Elexpe ileapaindegian (Olarriondo), Aizpurua okindegian, Txiribogan eta Aginagako Arrate egoitzan.



Xabier Aranburu

Aurrera nekez egiten baitu herdoildutako orratzak...

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak
TABERNA

Otar-Goxo
Elizkarguak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Santixabelak, aurten, uztailaren 1etik 8ra ospatuko dira

Aurreko astean egin zen udaletxean Santixabelak antolatzeko lehen bilera. Jaiak uztailaren 1ean hasi eta 8an amaituko dira. Santixabel bezperako txupinazoa, aurten, eguerdiz piztea proposatu du Jai Batzordeak. Hurrengo bilera martxoaren 27an egingo da, 19:30ean udaletxeko areto nagusian.

Jende ugari bildu zen, tartean, herriko talde eta gizarte arlo desberdinetako ordezkariak.

Lehen bileraren helburu nagusiak hauek ziren: jaiak zein egunetan ospatuko diren erabaki eta egun bakoitzean zein ekintza egingo diren zehaztu.

Egutegiari dagokionez, bi aukera zeuden: ekainaren 28tik uztailaren 3ra ala uztailaren 1etik 8ra. Hori zen erabaki beharrekoa. Bozketa bidez, aurtengo Santixabelak uztailaren 1ean hasi eta 8an amaituko direla erabaki zen.



SANTIXABEL BEZPERAKO
TXUPINAZOA EGUERDIAN PIZTU NAHI DA.

Era honetan, jaiak Santixabel bezperako txupinazoarekin batera hasiko dira. Berritasun bezala, aurtengoan txupinazoa eguerdian egitea proposatu zuen Jai Batzordeak.

Martxoaren 21erako talde guztiak antolatu nahi dituzten ekintzen berri emango dute udaletxean: ekintza, eguna, aurrekontua...

Horiek bildu eta Jai Batzordearen hurrengo bilera martxoaren 27an egingo da arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko areto nagusian.

Haizearen indarra

Lehengo astean haizeak gogor lastindu zituen gure inguruko bazterrak. Martxoaren 7ko gauan, argirik gabe geratu ziren Zubietan, San Estebanen eta Aginagako Intxorreta auzoan, besteak beste. Haizeak erriberako hainbat zuhaitz bota zituen eta baita Iberdrolako postea ere.

Argirik gabe geratu ziren Zubietako hainbat etxeetan ere. San Estebanen ere argia joan zen. San Estebanen larriagoa izan zen, argirik gabe urik ez delako iristen (ura San Estebanera eramaten duen sistema elektrikoa baita). Usurbilgo frontoian, aldiz, ezker pareteko hainbat plaka erori ziren (kristalezkoak). Baina haizeak bestelako arazoak ere sortu zituen. Zuhaitz asko bota zituen eta herri bideetan hainbat arazo eragin zituen.



INTXORRETATIK ATERATAKO IRUDIA.
GOIKALDEAN, IBERDROLAREN POSTEA
LURREAN BOTATA IKUS DAITEKE.

Jostailuak Aginagako ludotekarentzat

Aginagan sortutako Antxomolantxa elkarteko ludoteka, haurren aisialdi denboran eguraldi txarra egiten duenean jolasteko sortua da.

Baina materiala ez dute soberan. Horregatik, elkartetik herritarrei etxean izan eta erabiltzen ez dituzten jostailu, ipuin, puzzle... izanez gero, Eiza dendara eramatera dei egiten dute. Asmoa, material berria erosi beharrean alferrik dagoena erabiltzea da, duten aurrekontua ere txikia baita.

Bestalde, elkarteak martxoaren 24an Aginagatik igaroko den Korrika 15ean parte hartuko du. Egitarau berezia prestatu dute.

Martxoaren 30ean, bertso afaria

Martxoaren 30ean, gaueko 21:00etatik aurrera, Andatzpe elkartearen bertso afaria egingo da Bota Punttuba bertso eskolak eta Andatzpe elkarteak antolaturik. Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak arituko dira kantuan. Txartelak 20 eurotan salgai Txiriboga eta Andatzpe elkartearen.



Martxoaren 26an hasiko da Jubilatuen Astea

Gure Pakea elkarteak Jubilatuen Astea antolatu du. Martxoaren 26an hasiko da eta, besteak beste, lau hitzaldi egingo dira Sutegin. Gure Pakeak udalaren eta Kutxaren laguntza jasoko du. Informazio gehiago datoren asteko NOAUA!n.

Sagarrondotik jaialdiko karpa, herritar uholdeari harrera egiteko prest

Musika kartelera osatua. Karpa erraldoiak ere prest. Jan edana bertan. Antolatzaileak, jada, herritar uholdea iritsi eta Sagarrondotik jaialdiko atek ireki zain daude. Jaia, ostiral gaueko 21:00etan hasiko da. Sarrerak lortu ez dituenak, ostiral eta larunbat arratsaldeko 18:00etan zabalduko duten takilan eskura ditzake.

Kolore aniztasuna. Horixe da antolatzaileen esanetan, asteburuan Sagarrondotik jaialdiko musika emanaldietan ikusi ahal izango dena. Jaialdiaren aurkezpen ekitaldian iragarri bezala, joera eta herri ezberdinetako taldeen saioak izango dira martxoaren 16 eta 17ko gauetan.

Bereziak izango dira kontzertuak ikusleentzat; gogoan hartzekoak baita taldeentzat ere. Ostiralean, aurten hamargarren urtemuga beteko duen Skalariak, Erresuma Batutik datorren eskarmentu handiko The James Taylor Quartet, La Inconsciencia de Uoho, Katalunian bizi diren Delorean zarautzarrak eta itxierarako, AC/DC taldea omentzen duen The Bond Scott Band.

Larunbatean, Julieta Venegas

Larunbatean, antolatzaileen esanetan, zuzeneko onenetakoak eskaintzen dituen Atom Rhumba, lehen ediziotik jaialdira ekarri nahi eta aurtengoan bertan izango den Zea Mays, estilo ezberdinetako musika eta ikusleen gozagarri Julieta Venegas, Sagarrondotik-en jaiotze urtean parte hartu zuen Raimundo Amador Maneta de Kamionetarekin batera eta, itxierarako, Obrint Pas.

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartearen helburua, sagardoaren eremua ezagutaraztea da, bertako kultur adierazpide ezberdinak baliatuta. Aurtengoan ere ez zaizkio osagai horiek faltako.



RAIMUNDO AMADOR LARUNBATEAN ARITUKO DA SAGARRONDOTIK JAIALDIAN.

Hazten doan jaia

“Atzera begira jartzea, aurpegira irribarre bat ateratzea da”, adierazi zuen Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteko kide Aitziber Ezkerrak, aurreko lau jaialdiak baloratzerakoan. Jada, 2003.urteetik ospatu diren lau edizioetan 36 taldeek kontzertuak eskaini dituzte inguruetan parekorik ez duen jaialdian. Urtetik urtera markak hobetzen joan ostean, iaz musika jaialdira 10.000 bat lagun hurbildu ziren.

Karpa, iaz bezala, Hernaniko rugbi zelaian

Hernaniko Karabel auzoan, rugbiko zelaiaren parean izango da karpa. Gau bakoitzeko emanaldiak hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute gune erraldoia. Horren ondoan, beste bi karpa zabalduko dituzte, lasai jan edota sagardoa kupeletatik edateko. Sarrerak aldeztu aurretik erosi ez dituenak kontzertuen egunean bertan eskura ditzake, arratsaldeko 18:00etan irekiko baitute takilla.

ARITZ GORRITI

Puntako egitaraua

Martxoak 16, ostirala

22:00 Kontzertu gaua: Delorean, Skalariak, The James Taylor Quartet, The Bon Scott Band, La Inconsciencia de Uoho.



Martxoak 17, larunbata

21:00 Kontzertu gaua: Obrint Pas, Atom Rhumba, Julieta Venegas, Maneta De Kamioneta + Raimundo Amador, Zea Mays.



Julieta Venegas

Sarrerak non erosi?

Aldeztu aurretik: 21 euro, Ardi Beltzen. Takilan: 24 euro. Bi egunetarako bonoa: 36 euro.

Aurten bai!

Usurbilgo taldea gogoz ari da herri kirol lehiarako entrenatzen

Igande honetan, martxoak 18, Sagarrondotik eskenatokiz aldatu eta Urnietan izango da jaia. Artisau azoka eta sagardo dastatzearekin batera, IV. Herri Kirol Lehia ospatuko da Urnietako Udal Pilotalekuan. Usurbilgo kirol taldea, jada, erronkarako prest da.

Oso fin ibili beharko dute martxoaren 18an, Astigarraga, Urnieta eta Hernaniko kirol taldeek. Gogor eta ilusio handiz prestatzeaz gain, ahalik eta saiorik onena egitera joango baitira Usurbilgo ordezkariak. Azken aste hauetan egindako prestaketa lanak Urnietako Udal Pilotalekuan erakutsi ahal izango dituzte igande honetan, martxoak 18. IV Herri Kirol jaia ospatuko da bertan.

Zazpi probatan ahalik eta saiorik politena egiteko prest izango dira. Sokatira, sagar iltzatzea, ingudea, harri jasotzea, txingak, zaku lasterketa eta lokotxak dira sagardoaren lurraldeko lau herriak aurrez aurre jarriko dituzten frogak.

Aginagan, gogor prestatzen

Hamazazpi laguneko taldea osatuta, San Praixkutan jaietako txosna guneetako bat den lekuan, Aginagako Eliza Zaharreen alegia, bildu izan dira entrenamendu saioetarako. Astean hiru egunetan, afalaurretik. Kontuan hartu behar da, antolatzaileek aipatu izan duten bezala, espresuki jaialdi honetarako prestatu eta entrenatzen direla. Oraindik ere, beraz, meritu handiagoa dute.

Iaz aipatutako kirol frogak gehienetan bigarren postua eskuratu zuten. Bestalde, azken edizioetan, sagardoaren eremuko gainerako herrietako kirol taldeek ezin izan dute Urnietako kirol taldea mendean hartu. Aurtengoan, joera hori hausteko gogoz dira herrikoak; "lehen postua eskuratzera goaz", adierazi dute.

Lau herrietako kirol taldeek zein baino zein erakustaldi hobek eskaintzen saiatuko dira. Baina azkenean, lehia sano horretan ere, gatza eta piperra jartzen duten emaitzak izango dira. Aipatu bezala, azken



USURBILGO TALDEA DUELA ASTE BATZUK HASI ZEN SAGARRONDOTIK JAIALDIKO "DESAFIOA" PRESTATZEN.

edizioetan urnietarrak nagusitu dira sailkapen nagusian. Aurten gerta daitekeenaz galdetuta, hauxe litzateke IV Kirol Lehia horretako podium-a parte hartzaile usurbildar batzuen iritiz: Urnietakoak irabazle, usurbildarrak bigarren, Astigarragoak hirugarren eta azkenik, Hernanikoak. Ia, azken urteetako joera hautsi eta aurtengoan Usurbilgoak nagusitzen diren. Igandean, martxoak 18, goizeko 11:00etan hasiko da kirol festa handia.

Herri Kirol Lehia, igande honetan Urnietan

10:00. Sagardo festa herriko plazan: Sagardo dastaketa eta Buruntzaldeko artisauen azoka. Bildotsak burduntzian erreko dira plazan bertan.

11:00. IV. Herri Arteko Herri Kirol lehia Urnietako udal frontoian. Parte hartzaileak: Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Usurbil. Frogak: sokatira, sagar iltzatzea, ingudea, harri jasotzea, txingak, zaku lasterketa eta lokotxak.

12:00. Marijo Sardon harri jasotzailearen errekor saiakera; 113 kiloko harri zilindrikoarekin bost minutuko txandak.

Hamazazpikoa prest

Herri Kirol Lehiaren laugarren ediziorako Usurbilgo taldea osatua dago. Ondorengoak dira, jokoan izango diren zazpi probatan Astigarraga, Hernani eta Urnietako kirol taldeek aurrez aurre izango dituzten usurbildarrak:

Sagar iltzatzea: Karmele Bengoetxea eta Iker Mujika.

Harri jasotzea: Arkaitz Portularrume.

Ingudea: Iñaxio Murua.

Txingak: Iker Portularrume, Juantxo Zuriarrain.

Zaku lasterketa: Mikel Soroa, Kepa Unanue, Joxeba Aizpurua.

Lokotxak: Mikel Aranburu, Rosa Uribe.

Sokatira: Arkaitz Portularrume, Mikel Soroa, Aitziber Unanue, Aitziber Matxain, Joxe Mari Bengoetxea, Iñaki Errekondo, Joxe Luis Bruño, Joxeba Larburu.

Itsasoari idatzitako olerki eta bertsoak, Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen eskutik

Portukoplak. Hala izena du Mikel Urdangarin musikariak eta Kirmen Uribe olerkariak Sutegin taularatuko duten emanaldiak. Itsasoa gai gisa hartuta, hainbat bertso eta olerkiei ahotsa jarriko diete. Etumeta-AEK euskaltegiak Korrika Kulturalaren barne antolatu duen ekitaldia, ostiral honetan, gaueko 22:00etatik aurrera Sutegiko Auditorioan ikusi ahalko da. Sarrerak Txiribogan salgai, 5 eurotan.

Sirenak, naufragioak, baleazaleak, portuetako emakumeak... Itsas munduarekin lotuta dauden elementuak dira horiek guztiak. Olerkigintzan eta ipuinetan gaiari buruzko makina bat istorio bildu dira. Tarte handia izan dute alor horietan. Orain, bertso zahar zein berriagoei ahotsa jarriko diete zornotzar eta ondarrutar batek; Mikel Urdangarin musikariak eta Kirmen Uribe olerkariak. Lehendik ere, elkarrekin lanean aritu izan dira eta oraingoan, Korrika Kulturalaren eskutik elkarlan hori berriz taula gainean irudikatuko dute.

“Portukoplak” izena du haien lanak. Bertsoak eta olerkiak zuzenean abestu eta irakurriko dituzte. Batzuetan, Urdangarinen gitarrak lagunduta, besteetan ahots kordez baliatuta soilik.

Kresal usain bizia izango duen emanaldia Etumeta-AEK euskaltegiak antolatu du, Korrika Kulturalaren barne. Otsailaren 1ean hasi zen eta Korrika 15 girotzen duen kultur biran estreinatu dela esan daiteke, alde aurretik Ondarroan soilik eskaini zutelako “Portukoplak” emanaldia.

Sarrerak Txiribogan salgai

“Portukoplak” Sutegin plazaratuko dute ostiral honetan, martxoak 16, gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrerak alde aurretik 5 eurotan eskura daitezke Txiribogan.



KIRMEN URIBE ETA MIKEL URDANGARIN, “PORTUKOPLAK” SAIOKO PROTAGONISTAK.

Datorren astean iritsiko da Korrika

Astebete baino ez da falta “Heldu” lemapean Korrika 15 ekimenari Usurbilen harrera egiteko. Martxoaren 24ko afalorduan izango da, alde aurretik girotze ekitaldirik faltako ez den arren.

Zubieta zeharkatu eta erriberatik barrena, Santuenera. Handik Kaxko inguruak alde alde pasa eta Aginagara. Horixe izango da Korrika 15ak inguru hauetan egingo duen ibilbidea. Ordubete inguru eta hamaika kilometro korrika egin beharko ditu aipatutako ibilbidea egin nahi duenak. 20:50ak aldera Araeta parera iritsiko lirateke lasterkariak, 21:20ak aldera Kaxkora eta 21:35ean Aginagara.

Girotze ekitaldiak

Korrika 15 ailegatu bezperan, hilaren 23an, Udarregi ikastolakoak lasterka aterako dira. Korrika Txikia



MARTXOAREN 24AN IRITSIKO DA KORRIKA GURE ARTERA.

izenez ezaguna dena, dortsal eta guzti euskararen alde lasterka egingo dute.

Aginagako Antxomolantxa elkar-tekoek ere egitaraua antolatu dute ekimen horren atarian; hilaren 24an, film emanaldia 16:00etan, haurrentzako jokoak 18:00etan eta afari merienda eta erromeria ordubete beranduago. 21:30ak aldera Korrika Aginagara iristean bertan parte hartuko dute.

“Heldu” lemapean, edizio honetan gau-eskolak lagundu nahi dira.

Larunbat honetan, NOAUA!ko bazkideen ohiko batzarra

NOAUA!ko bazkideen batzarra urtean behin bil-tzen da eta elkartearen norabidea eta egitasmoak erabakitzen dira bertan. Aurten, martxoaren 17an egingo da batzarra, NOAUA!ren egoitzan bertan, goizeko 10:30etik aurrera.

2006ko memoria eta balantze ekonomikoa aztertu eta 2007rako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko dira martxoaren 17ko batzarrean. Iaz bezala, aurten ere NOAUA!ren egoitzan bertan egingo da bazkideen batzar nagusia.

Zuzendaritza batzordea osatuko duen lan taldea ere zehaztuko da martxoaren 17ko batzarrean. Gogoan



BAZKIDEEN BATZARRA GOIZEKO 10:30EAN HASIKO DA.

izan, bazkideek urteko batzarrean onartutako egitasmoa gauzatu eta garatzen duela zuzendaritza batzordeak. Elkartearen helburuak zaintzeaz gain, elkarteko lantalde eta egitasmoe-tarako baliabideak antolatzeaz ere arduratzen da.

NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen Batzar Nagusia

EGUNA:

Martxoak 17, larunbata.
Lehen deialdia, 10:15ean.
Bigarren deialdia, 10:30ean.

TOKIA:

NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan
(Bordaberri 3, behea).

GAI-ZERRENDIA:

1. 2006ko memoria eta 2006ko balantze ekonomikoa.
2. 2007ko egitasmoak eta 2007rako aurrekontuak.
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
4. Galdera/erantzunak.

Film labur berriak ezagutzeko aukera paregabera

Abian da Euskarazko Film Laburren Zirkuitua, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak laugarren urtez martxan jarri duen ekimena. Zirkuituak 6 film laburrez osatutako 37 emaldi eskainiko ditu beste horrenbeste herritan. Eskainiko den laburretako bat, Ane Muñozen "Loturak" izenekoak, zirkuituan bertan estreinatuko da. Usurbilen martxoaren 15ean ikus ahal izango ditugu film labur hauek, iluntzeko 20:00etatik aurrera Sutegin, NOAUA!ren eskutik.



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42



Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Ohorezko mailara bidean

Usurbil Judo Taldeak gizonen kuben Liga Nazionaleko 3. jardunaldia izango du igande honetan Madrilgo Kirol Kontseilu Gorenaren kiroldegian. Herriko ordezkariak klub onenak dauden Ohorezko Mailara igotzea dute helburu, eta lehenengo bi saioetan ikusita-koaren arabera bide onetik doaz. Orain arte jokaturako saio guztiak irabazi dituzte eta sailkapeneko lehen postuan kokatuta daude.

Asteburu honetan jokatu dituzten hiru saioak irabaziaz gero eskura izango dute igoera. Lehen bi jardunaldiak jokatu eta gero 1. mailan lidergoan da herriko judo taldea 12 punturekin. Orain arte jokoan egon diren puntu guztiak lortu dituzte multzoko sei talde gaingitu ondoren eta beste sei talderen aurkako saioak falta badira ere, Ohorezko Mailara igotzeko aukerak ihes egitea zaila izango da.

Lehen hiru postuetan gelditzen diren taldeak pasako dira 12 talde onenen multzora eta usurbildarrek 4 puntuko aldea dute 4. postuan kokatuta dagoen taldearekiko. Beraz, igandean jokoan egongo diren 6 puntuak lortuz gero, Ohorezko Mailatik oso hurbil geldituko dira. Hirugarren jardunaldi eta gero dagoeneko igoera lortzea ere posible da,



IGANDE HONETAN JOKATUKO DA
IGOERA FASEA MADRILEN.

beraiek puntu guztiak lortu eta beste taldeen arteko emaitzek laguntzen badute. Horretarako, ordea, aurrez aurre izango dituzten Y.R. Ortega, Ibaraki eta Budokan taldeak gaingitu beharko du Ibai Peña, Andoni Aizpurua, Aitzol Arrospide, Xabier Urkizu, Iker Lizarribar, Egoitz Mora eta Mikel Ponga partaide diren Usurbil Judo Elkarteak.

Bestalde, pasa den asteburuan jokatu zen Madrilen 20 urte azpiko Espainiako Txapelketa, eta herriko judo taldeko judoek ezin izan zuten dominik lortu. Nerea Sanz (-48 kg), Janire Alonso (-63 kg), Nerea Arruti (-70 kg) eta Anne Perez (78 kg) izan ziren Espainiako Txapelketa honetan parte hartu zuten Usurbil Judo Elkarteako partehartzaileak.

JOSU ARANBERRI _____

Jubenil mailako eskubaloitaldearen partida erabakigarria

Jubenil mailako eskubaloitaldeak partida garrantzitsua jokatu du asteburu honetan Oiardo kiroldegian. Gipuzkoako Txapelketa izango dute jokoan herriko jokalariek gazteek. Puntu kopuru berarekin sailkapenean lidergoan dauden Usurbil KE eta Ereintza Aguaplast izango dira aurrez aurre neurketa honetan. Ooreretako taldeak 4 puntuko aldea izan du duela gutxi arte, baina bi norgehiagoka galdu ostean, herriko taldea beraiekin partekatu da. Txapelketa amaitzeko hiru jardunaldi besterik ez dira falta eta usurbildarrek euren esku dute txapelketa. Falta diren hiru partidak irabaziaz gero beraiek amaituko dute lehen postuan.

Usurbil FT - Intxurre, Harane futbol zelaian

Usurbil Futbol Taldeko jubenilek Harane futbol zelaian jokatu dute asteburu honetan. Kopa Txapelketako bigarren itzuliko lehenengo partidari Alegiako Intxurre taldea izango dute aurrez aurre. Norgehiagoka garrantzitsua da hau usurbildarrentzat. Jokaturako azken hiru partidak irabazi ondoren 4. postuan kokatu da Xabier Iraolak zuzendutako taldea eta alegiarrak lau puntu gehiagorekin lidergoan daudela kontuan hartuta, garaipena behar beharrezkoa dute ligaxka amaitu baino lehen aurreko postuetara iritsi ahal izateko.

Santxo eta Huizi trinketan txapeldunorde

Andatzpe-Peña Pagola pilota elkarteak ezin izan zuen pasa den larunbatean iaz trinketan lortutako Gipuzkoako txapelketa berretsi. Aurten ere txapela eskuratzeko aukera zuten finalera iritsi eta gero, baina Irurako Trinketan jokaturako finalean ezin izan zuen garaipena lortu herriko bikoteak.

Jabier Santxo eta Enrike Huizi izan ziren azken partida hau jokatu zutenak. Txapelketa osoan Mikel Landa izan da Huiziren bikotea, baina kanpora joan beharra izan zuenez Santxok bete zuen bere lekua. Hernani taldeko Unai Albarezek eta Josu Oiagak osatutako

bikoteak ez ziren aukerarik eman. 40-14 izan zen norgehiagokako azken emaitza eta txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan zuen herriko bikoteak.

Bestalde, pala gomako 2. mailan, Udaberri txapelketako finalerdiko lehen partida jokatu zuten Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpilletak Loiolan bertako palisten aurka eta 25-20 galdu zuten. Ostiral honetan jokatu da itzuliko partida Aginagako Harizitxo pilotalekuan eta finalerako txartela lortu ahal izateko norgehiagoka irabazi beharko du herriko bikoteak eta aurkariak 20 tanto baino gutxiago egin beharko dituzte.

Eguneko goardiako farmaziak

Martxoak 15, osteguna
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Martxoak 16, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 17, larunbata
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Martxoak 18, igandea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Martxoak 19, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 20, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 21, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 22, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 23, ostirala
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Martxoak 24, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Martxoak 25, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Masaje tailerra antolatu dute Haur Eskolan

Haur Eskolako guraso elkarteak antolatu du tailerra. Apirilaren 2an hasiko da eta apirilean, maiatzean eta ekainean izango du jarraipena ikastaro honek. Astelehenetan egingo da, arratsaldeko 16.30etik 18.00etara, Haur Eskolako psikomotrizitate gelan. 3 eguneko saioak izango dira, 0-1 adin tarteko guraso eta haurrei zuzendua. Bideratzailea Joxe Ramon Maudit psikologoa izango da. Gorputz terapeuta, psikoterapeuta eta prebentzioan ere aditua da Maudit doktorea. Hizkuntza: euskaraz eta gazteleraz. Prezioa: 10 euro. Izen-ematea, 943 374 061 telefono zenbakian. Deitzen duten lehenengoek izango dute lehen-tasuna.

| ORDUTEGIA Tren | | | | | | | | ORDUTEGIA Tren | | | | | | | |
|-------------------|-------------------|-----------------|--------------------|---------|----------|--------------------|---------|-------------------|--------------------|----------|---------|--------------------|-----------------|-------------------|----------------|
| Donostia AMARA | Donostia LUGARITZ | Donostia ANORGA | Donostia ERREKALDE | USURBIL | Orio AIA | Zarautz SAN PELAIO | ZARAUTZ | ZARAUTZ | Zarautz SAN PELAIO | Orio AIA | USURBIL | Donostia ERREKALDE | Donostia ANORGA | Donostia LUGARITZ | Donostia AMARA |
| 05:47 | 05:50 | 05:52 | 05:55 | 06:03 | 06:14 | 06:19 | 06:20 | 06:08 | 06:09 | 06:15 | 06:24 | 06:30 | 06:33 | 06:36 | 06:39 |
| 06:17 | 06:20 | 06:22 | 06:25 | 06:33 | 06:44 | 06:49 | 06:50 | 06:38 | 06:39 | 06:45 | 06:54 | 07:00 | 07:03 | 07:06 | 07:09 |
| 06:47 | 06:50 | 06:52 | 06:55 | 07:03 | 07:14 | 07:19 | 07:20 | 07:08 | 07:09 | 07:15 | 07:24 | 07:30 | 07:33 | 07:36 | 07:39 |
| 07:17 | 07:20 | 07:22 | 07:25 | 07:33 | 07:44 | 07:49 | 07:50 | 07:38 | 07:39 | 07:45 | 07:54 | 08:00 | 08:03 | 08:06 | 08:09 |
| 07:47 | 07:50 | 07:52 | 07:55 | 08:03 | 08:14 | 08:19 | 08:20 | 08:08 | 08:09 | 08:15 | 08:24 | 08:30 | 08:33 | 08:36 | 08:39 |
| 08:17 | 08:20 | 08:22 | 08:25 | 08:33 | 08:44 | 08:49 | 08:50 | 08:38 | 08:39 | 08:45 | 08:54 | 09:00 | 09:03 | 09:06 | 09:09 |
| 08:47 | 08:50 | 08:52 | 08:55 | 09:03 | 09:14 | 09:19 | 09:20 | 09:08 | 09:09 | 09:15 | 09:24 | 09:30 | 09:33 | 09:36 | 09:39 |
| 09:17 | 09:20 | 09:22 | 09:25 | 10:03 | 10:14 | 10:19 | 10:20 | 10:08 | 10:09 | 10:15 | 10:24 | 10:30 | 10:33 | 10:36 | 10:39 |
| 10:17 | 10:20 | 10:22 | 10:25 | 11:03 | 11:14 | 11:19 | 11:22 | 11:08 | 11:09 | 11:15 | 11:24 | 11:30 | 11:33 | 11:36 | 11:39 |
| 11:17 | 11:20 | 11:22 | 11:25 | 12:03 | 12:14 | 12:19 | 12:20 | 12:08 | 12:09 | 12:15 | 12:24 | 12:30 | 12:33 | 12:36 | 12:39 |
| 12:17 | 12:20 | 12:22 | 12:25 | 13:03 | 13:14 | 13:19 | 13:20 | 12:38 | 12:39 | 12:45 | 12:54 | 13:00 | 13:03 | 13:06 | 13:09 |
| 12:47 | 12:50 | 12:52 | 12:55 | 13:33 | 13:44 | 13:49 | 13:50 | 13:08 | 13:09 | 13:15 | 13:24 | 13:30 | 13:33 | 13:36 | 13:39 |
| 13:17 | 13:20 | 13:22 | 13:25 | 13:33 | 13:44 | 13:49 | 13:50 | 13:38 | 13:39 | 13:45 | 13:54 | 14:00 | 14:03 | 14:06 | 14:09 |
| 13:47 | 13:50 | 13:52 | 13:55 | 14:03 | 14:14 | 14:19 | 14:20 | 14:08 | 14:09 | 14:15 | 14:24 | 14:30 | 14:33 | 14:36 | 14:39 |
| 14:17 | 14:20 | 14:22 | 14:25 | 14:33 | 14:44 | 14:49 | 14:50 | 14:38 | 14:39 | 14:45 | 14:54 | 15:00 | 15:03 | 15:06 | 15:09 |
| 14:47 | 14:50 | 14:52 | 14:55 | 15:03 | 15:14 | 15:19 | 15:20 | 15:08 | 15:09 | 15:15 | 15:24 | 15:30 | 15:33 | 15:36 | 15:39 |
| 15:17 | 15:20 | 15:22 | 15:25 | 15:33 | 15:44 | 15:49 | 15:50 | 15:38 | 15:39 | 15:45 | 15:54 | 16:00 | 16:03 | 16:06 | 16:09 |
| 15:47 | 15:50 | 15:52 | 15:55 | 16:03 | 16:14 | 16:19 | 16:20 | 16:08 | 16:09 | 16:15 | 16:24 | 16:30 | 16:33 | 16:36 | 16:39 |
| 16:17 | 16:20 | 16:22 | 16:25 | 16:33 | 16:44 | 16:49 | 16:50 | 16:38 | 16:39 | 16:45 | 16:54 | 17:00 | 17:03 | 17:06 | 17:09 |
| 16:47 | 16:50 | 16:52 | 16:55 | 17:03 | 17:14 | 17:19 | 17:20 | 17:08 | 17:09 | 17:15 | 17:24 | 17:30 | 17:33 | 17:36 | 17:39 |
| 17:17 | 17:20 | 17:22 | 17:25 | 17:33 | 17:44 | 17:49 | 17:50 | 17:38 | 17:39 | 17:45 | 17:54 | 18:00 | 18:03 | 18:06 | 18:09 |
| 17:47 | 17:50 | 17:52 | 17:55 | 18:03 | 18:14 | 18:19 | 18:20 | 18:08 | 18:09 | 18:15 | 18:24 | 18:30 | 18:33 | 18:36 | 18:39 |
| 18:17 | 18:20 | 18:22 | 18:25 | 18:33 | 18:44 | 18:49 | 18:50 | 18:38 | 18:39 | 18:45 | 18:54 | 19:00 | 19:03 | 19:06 | 19:09 |
| 18:47 | 18:50 | 18:52 | 18:55 | 19:03 | 19:14 | 19:19 | 19:20 | 19:08 | 19:09 | 19:15 | 19:24 | 19:30 | 19:33 | 19:36 | 19:39 |
| 19:17 | 19:20 | 19:22 | 19:25 | 19:33 | 19:44 | 19:49 | 19:50 | 19:38 | 19:39 | 19:45 | 19:54 | 20:00 | 20:03 | 20:06 | 20:09 |
| 19:47 | 19:50 | 19:52 | 19:55 | 20:03 | 20:14 | 20:19 | 20:20 | 20:08 | 20:09 | 20:15 | 20:24 | 20:30 | 20:33 | 20:36 | 20:39 |
| 20:17 | 20:20 | 20:22 | 20:25 | 21:03 | 21:14 | 21:19 | 21:20 | 21:08 | 21:09 | 21:15 | 21:24 | 21:30 | 21:33 | 21:36 | 21:39 |
| 20:47 | 20:50 | 20:52 | 20:55 | 21:03 | 21:14 | 21:19 | 21:20 | 22:08 | 22:09 | 22:15 | 22:24 | 23:00 | 23:03 | 23:06 | 23:09 |
| 21:17 | 21:20 | 21:22 | 21:25 | 22:03 | 22:14 | 22:19 | 22:20 | 22:40 | 22:41 | 22:47 | 22:56 | 23:00 | 23:03 | 23:06 | 23:09 |

DONOSTIA - ZARAUTZ

ZARAUTZ-DONOSTIA

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAETAN

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAETAN

Agenda !!

Martxoak 15, osteguna
 - Euskarazko Film Laburren Zirkuitua Sutegin, 20:00etatik aurrera, NOAUA!ren eskutik. Babeslea: Usurbilgo udala.

Martxoak 16, ostirala
 - Korrika Kulturala. 22:00etan Portukoplak ikuskizuna Sutegin, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen eskutik. Sarrerak aldeaz aurretik 5 eurotan Txiribogan salgai.

Martxoak 17, larunbata
 - NOAUA!ko bazkideen batzarra. 10:15ean lehen deialdia, 10:30ean bigarrena. NOAUA!ko bulegoan.

Martxoak 18, igandea
 - 11:00etan Sagarrondotik jaialdiko Herri Kirol Lehia Urnietako udal frontoian. Partehartzaileen artean, Usurbilgo taldea.

Literaturaren txokoa !!



Paul Austerren

“Bidaiak scriptoriumean zehar”

Gizon zahar bat gela itxi batean eserita dago. Gelak ate bakarra du, leiho bakarra, ohe bat, mahai bat eta aulkia. Memoriarik gabe esnatzen da egunero. Ez da gogoraten ezta gelatik irteatea zilegi duen edo ez. Gela barruan dituen objektu gutxi horiek guztiek zinta-zerrenda bana dute objektuaren izena eskuz idatzita dakarrela. Mahaiaren gainean, berriz, argazki zuri-beltzeko batzuk ezagun egiten zaizkionak eta lau fardel folio.



pilulez eta tratamenduez mintzo zaio; baita amodioaz eta promesez ere.

Nor da gizon zahar hori? Zein da bere patua? Nor da Anna hori eta zer izan da gizon zaharraren iraganean? Lotuko al ditu gizonak aurkezten zaizkion soka mutur guztiak ordura arteko bere bizitzak zentzua izan dezan?

“Brooklyngo erokeriak” eleberriaren arrakastaren ondoren, Auster ildo sinbolikoago batera itzultzen da. “Bidaiak scriptoriumean zehar” puzzle misteriotasu bat da, idazlea eta irakurlea modu berean auziratzen dituen joko kezka-sortzailea; hizkuntza, erantzukizuna eta denboraren joana aztergai dituen eleberriz asotsua.

Une horretan tarteko adineko emakume bat, Anna, sartzen da gelan, eta

| ORDUTEGIA Autobus Astolohenetik Ostiralera LANEGUNETAN | | | | | | | |
|--|-------|---------|---------|---------|---------|-------|----------|
| DONOSTIA | URBIL | USURBIL | ZARAUTZ | ZARAUTZ | USURBIL | URBIL | DONOSTIA |
| 07:40 | >> | 08:05 | 08:25 | 06:45 | 07:05 | >> | 07:30 |
| 08:10 | >> | 08:35 | | 07:15 | 07:35 | >> | 08:00 |
| 08:40 | >> | 09:05 | 09:25 | 07:45 | 08:05 | >> | 08:30 |
| 09:10 | 09:30 | 09:35 | | 08:15 | 08:35 | >> | 09:00 |
| 09:40 | >> | 10:05 | 10:25 | 08:45 | 09:05 | >> | 09:30 |
| 10:10 | >> | 11:05 | 11:25 | 09:15 | 09:45 | >> | 10:10 |
| 11:40 | >> | 12:05 | 12:25 | 09:45 | 10:05 | >> | 10:30 |
| 12:10 | 12:30 | 12:35 | | 10:15 | 10:45 | >> | 11:10 |
| 12:40 | >> | 13:05 | 13:25 | 10:45 | 11:05 | >> | 11:30 |
| 13:10 | 13:30 | 13:35 | | 11:15 | 11:35 | >> | 12:30 |
| 13:40 | >> | 14:05 | 14:25 | 11:45 | 12:05 | >> | 13:30 |
| 14:10 | 14:30 | 14:35 | | 12:15 | 12:45 | >> | 14:10 |
| 14:40 | >> | 15:05 | 15:25 | 12:45 | 13:05 | >> | 14:30 |
| 15:10 | 15:30 | 15:35 | | 13:15 | 13:45 | >> | 15:10 |
| 15:40 | >> | 16:05 | 16:25 | 13:45 | 14:05 | >> | 15:30 |
| 16:10 | >> | 17:05 | 17:25 | 14:15 | 14:45 | >> | 16:10 |
| 17:40 | >> | 18:05 | 18:25 | 14:45 | 15:05 | >> | 16:30 |
| 18:10 | 18:30 | 18:35 | | 15:15 | 15:45 | >> | 17:10 |
| 18:40 | >> | 19:05 | 19:25 | 15:45 | 16:05 | >> | 17:30 |
| 19:10 | 19:30 | 19:35 | | 16:15 | 16:45 | >> | 18:30 |
| 19:40 | >> | 20:05 | 20:25 | 16:45 | 17:05 | >> | 18:30 |
| 20:10 | 20:30 | 20:40 | 21:00 | 17:15 | 17:45 | >> | 19:30 |
| 21:00 | 21:20 | 21:25 | 21:45 | 17:45 | 18:05 | >> | 20:30 |
| 22:15 | 22:35 | 22:40 | 23:00 | 18:15 | 18:35 | >> | 21:30 |
| | | | | 18:45 | 19:05 | >> | 22:30 |

| ORDUTEGIA Autobus Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN | | | | | | | |
|--|-------|---------|---------|---------|---------|-------|----------|
| DONOSTIA | URBIL | USURBIL | ZARAUTZ | ZARAUTZ | USURBIL | URBIL | DONOSTIA |
| 08:00 | 08:20 | 08:25 | 08:45 | 06:45 | 07:05 | 07:10 | 07:20 |
| 09:00 | 09:20 | 09:25 | 09:45 | 07:45 | 08:05 | 08:15 | 08:40 |
| 10:00 | 10:20 | 10:25 | 10:45 | 08:45 | 09:05 | 09:15 | 09:40 |
| 11:00 | 11:20 | 11:25 | 11:45 | 09:45 | 10:05 | 10:15 | 10:40 |
| 12:00 | 12:20 | 12:25 | 12:45 | 10:45 | 11:05 | 11:10 | 11:40 |
| 13:00 | 13:20 | 13:25 | 13:45 | 11:45 | 12:05 | 12:15 | 12:40 |
| 14:00 | 14:20 | 14:25 | 14:45 | 12:45 | 13:05 | 13:15 | 13:40 |
| 15:00 | 15:20 | 15:25 | 15:45 | 13:45 | 14:05 | 14:15 | 14:40 |
| 16:00 | 16:20 | 16:25 | 16:45 | 14:45 | 15:05 | 15:15 | 15:40 |
| 17:00 | 17:20 | 17:25 | 17:45 | 15:45 | 16:05 | 16:15 | 16:40 |
| 18:00 | 18:20 | 18:25 | 18:40 | 16:45 | 17:05 | 17:15 | 17:40 |
| 19:00 | 19:20 | 19:25 | 19:45 | 17:45 | 18:05 | 18:15 | 18:40 |
| 20:00 | 20:20 | 20:25 | 20:45 | 18:45 | 19:05 | 19:15 | 19:40 |
| 21:00 | 21:20 | 21:25 | 21:45 | 19:45 | 20:05 | 20:15 | 20:40 |
| 22:00 | 22:20 | 22:25 | 22:45 | 20:45 | 21:05 | 21:15 | 21:30 |
| 22:30 | 22:50 | 22:55 | 23:15 | 21:45 | 21:05 | 21:15 | 21:40 |
| HEGUKO LABURRATZ GAUETAN | | | | | | | |
| 00:00 | >> | 00:25 | 00:45 | 23:15 | 23:35 | >> | 00:00 |
| 02:00 | >> | 02:25 | 02:45 | 01:15 | 01:35 | >> | 02:00 |
| 04:00 | >> | 04:25 | 04:45 | 03:15 | 03:35 | >> | 04:00 |
| 06:00 | >> | 06:25 | 06:45 | 05:15 | 05:35 | >> | 06:00 |

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAKLan-eskaintzak

- Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 678582665.
- Sukaldari laguntzailea behar da Usurbilen. Interesatuak deitu 943370344 telefono zenbakira.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatexean. 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645 403 905.
- Astebukaeratan lan egiteko zerbitzari bat behar da. 943 36 67 10.

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak

egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906

- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635 209 193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideok montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Gure loritoa martxoaren 7an desagertu zen, haize handiarekin beldurtu egin

zen. Ikusten baduzu, mesedez, deitu: 656 734 413 (Ainara).

- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664774024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. 679185102
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor. edozein ospakizunetako bideok editatu... 617242660 /apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordainetan !Zorionak Garazi!

Martxoaren 13an egin zituen bi urte gure etxeko txikiak. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.

Zorionak Maddi!

Badator martxoaren 23a eta etxeko printzesak 8 urte beteko ditu. Zorionak ahizpa, anaia eta gurasoen partetik.

Zorionak Iratxe!

Martxoaren 13an lau urte handi egin zenituen, zorionak eta muxu handi bat zuzretzat!

Zorionak Eneritz!

Martxoaren 14an Eneritzen urtebetetzea izan zen eta ez dugu ahaztu. Besarkada eta muxu asko familikoan partetik!

JAIOTAKOAK

- Julene Herrador Agudo, Otsailaren 28an jaio zen.

HILDAKOAK

- Amelia Lopez Perez Martxoaren 8an hil zen 76 urte zituela. Kaleberri.

Oharra

Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenik orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefono zenbakian: 943 360 321. Edo bestela, e-postaz bidali honako helbidera: erredakzioa@noaua.com

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enca, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

euskarak
behar gaitu!

æk
heldu

izan zaitez
korrika
laguntzailea

12 euroren
truke

www.korrika.org



OSASUN GIDA

Fisioterapia



Fisioterapia Zentrua
Ibaiondo

Fisioterapia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 14 • behea, ezk. LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

Masajista



Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44 • behea • LASARTE-ORIA

masaje zentroa

illarra

Eskusko masaje klasikoa • Masaje Terapeutikoa
Kirol masajea • Elektroestimulazioa • Errehabilitazioa

Hernani bidea, 4 • LASARTE • ☎ 679 488 905

Optika



USURBIL
OPTIKA

Erretinatoko operatutak • Igerilekuak baxiok neurrira eginda
BEI HERAPENAK eguzkitako babasarekin

Zubiaurenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

Odontologia



C.O.E.G.

Odontologa
Dra. M^a Jesús Rubio Muñoz

Bizkaite kalea, 1 - 1Ezb. USURBIL
☎ 943 36 18 59

Gida honetan azaldu nahi baduzu:
☎ 943 360 321 • publizitatea@noaua.com